

## GIZONA ETA LURRA

(1983. urtean Baztango idatz sari-  
keta irabazi zuen lana).

Igande guziz bezala meza ondotik aitatxi elizako dorretik jautsi da erlojuari martxa emanaz gero, eta etxeratekoan, zerrura begira erraten nau:

Gaur denbora ederra dago, bazkal ondoan Elixondoko bordarat joan behar dut osaba Jenaro bisitatzera.

Aitatxi, ni zurekin joanen naiz. Erraten diot.

Aitaxirekin mendian ibiltzea gauza polita da. Eta holaxe, bazkal ondoan, zere lo-kuluxka egin gabe, aitaxik du bere makila, xistu egiten dio «Kai» xuribeltz txakurrari eta martxan!

Herritik ateratzen gara Sansineko etxeko aintzinean barna, eta hemen atxematen dugu osaba Pedro.

—Zer Erramun, promene denbora ederra hunekin?

—Bai, bueltaxka bat eman behar dugu Elixondoko bordan barna, ean zer berri dugun han barna.

—Bon, goraintziak orduan han deneri nere partez.

—Ederki da, emanen diotet. Gero arte.

—Bai gero arte.



Eta aitatzik, «Kaiek» eta nik aintzina jotzen dugu. Orain, herria gure giblean utziz hartzen dugu bidexka txar batetik. Aitatzik ibilki delarik ez du solasik egiten. Alde batera eta bertzera begiratzen du ikusi bezala gauzak bere lekuan izanen ote diren. «Kai» harat eta hunat ibilki da lasterka, batzuetan saingaka hasitzen da eta aire partitzen da gure bistatik gordetuz. Geroxago agertzen zaigu aspertua eta mingaina ahotik zitzilik. Holaxe aintzina goaz hiruak, eta huntan aitatzik gelditzen da eta alde batera, urrun, begiratzen du.

—Begira ezazu, hemendik ageri da aski ongi itsasoa. Eta makila altxatuarekin erakusten nau gure Kantaurikoa. Denbora garbiarekin barkuak eta denak ikusten dire; eta hunatxago, hortxe ezker, Sara; eta bertze herri hura Ainhoa dugu.

Gero, makila berriz ere lurlean pausatzen du bidea aintzina segitzeko. Orain, poliki poliki, malda goiti goaz mendi ton-tor batera, orduan nik galdetzen diot aitatzik ean nola izena duen mendi hunek.

—Mendi hunek «Azkar» izena du, eta gainera hau mendi fat-matua da. Beazu, bada kantu bat eta dena mendi hunen kontuz.

Eta hola, aitatzik apal apal kantatzen hasitzen da: «Neonek ikusi dut, nere begiekin «Azkar» egiko maldan, zazpi mila sorgin...

«Kaiek» ere lurlean jarrita begiratzen dio, iduri du ulertu duela. Eta berriz, ixil ixilik segitzen dugu bidexka.

Bainan gure bidexka tzartzen hasi zaigu. Iduri du larrak eta bertze belar zikinek jan nahi dutela. Handik eta hemendik ahal bezala pasten gara, «Kai» saltoka eta errestaka, aitatzik makilarekin bidea edekitzen eta ni aitatzik gibeletik. Nik erranen nuen ez ginuela biderik, bainan doike aitatzik bazakien non barna ibilki ginen, eta aintzina jotzen ginuen, ez ginen gelditzen, eta hola ondarrean bidea berriz aintzinean agertzen zaigu.

Bideak galtzen hari dire. Erraten nau aitatzik. Orain ez da nior oinez ibiltzen. Bakotxak bere kotxea badu, pistak edekitzen dire eta lehengo bide zaharrak larrendakoz. Gu gazteak ginelarik Elizondoko ferietara joateko goizeko bi orduetan jai-

kitzen ginen oinez gustura ailegatzeko. Eta zenbat igande Etxalarra joan animale salduak entregatzera eta itzuli hamar terdie-tako meza entzutera. Oroitzen naiz aldi batez bi orduz egin ginuela Etxalartik herrikoraino bidea.

Orain malda beiti goaz. Azpi hartan etxe txuri bat ageri da, Elixondoko borda dugu, ailagatu gara. Hemen gure bidea bukatzen da. Aitatxik uzten du bere makila ate ondoan eta hirua barnerat sartzen gara.

Gero, iluntxean, etxerat itzuli beharko dugu, bainan ordukotz badugu kotxe bat eta pista eder bat... ez dire lehengo denborak.

—Ongi zala ere. Pideia oso apur mendula ez zitzaion. Orain saltzeko aña ere arek bai! Anx beiti alabari oska:

—Non utz? Urrik ez diragu!

**KORO IRATZOKI**

—Orren azkarr atxi al zaio?

**Zugarramurdikoa**

—Esan gabe ik bein ere ez den ikasiko etxeko bearrak zer diran.

—Anxi! Zer egin beati det?

Esan gabe ez al dakin. Oa beialaxe iturrira.

Errik, Pideia'k bakarrik ez zuen iturrira joan nai izatez. Su-beak izaien zirala... eta ustekabeen zulotik bat aterako ba-tita! Zer egin? Bi elkarrekin ipanex bestelako giroa eta poza motzean! Izketarako laguna eta purra lasai egiteko erria.

Pideia'ren anak izena Inaxi, eta:

—Ihor eldu al zain?

—Oso aukerakoa.

—Nor unan?

—Ixabel Langara.

—Nolabait soyta zifaiten, eta, orain-zuek biok banutzerik ez degola. Zer berriketa izaten dituzte?

—Laguna izaten txarra al da?